# APIRILA
# ABRIL

2013




**Alhóndiga**
Bilbao

**Kultura Bizi**
**Den Tokia**
Donde Vive
la Cultura

www.alhondigabilbao.com

# el CONTRATO

## 2013 - 2014

**BULEGOA Z/B-REN PROIEKTU BAT ALHÓNDIGABILBAO-REKIN**

UN PROYECTO DE BULEGOA Z/B CON ALHÓNDIGABILBAO

# BULEGOA Z/B

## 'KONTRATUA' IRAKURKETA-TALDEAREN DEIALDIA

2013an eta 2014an, Bulegoa Z/Bk eta AlhóndigaBilbaok elkarrekin lan egingo dute 'Kontratua' proiektuaren bidez. Lehenengo fasean, irakurketa-taldea eratuko da AlhóndigaBilbaon, 2013ko apiriletik 2014ko urtarrilera. Hain zuzen ere, 'Kontratua' proiektuko gaiei buruz hausnartzeko eta lan egiteko taldea sortzea da helburua (ikusi www.alhondigabilbao.com). Taldearen lan-metodologiaren arabera, aldian aldiko zenbait irakurketa-saio egingo dira AlhóndigaBilbaoko Laborategi Aretoan. Horretarako, proposatutako lau arloetako kontratuzko harremanei buruzko gaiak lantzen dituzten testuak erabiliko dira (komisariotza, kritika, teoria soziala eta dantza).

Bigarren fasea 2014an egingo da, eta lehen lan-urteko hausnarketak bilduko dira bertan.
Irakurketa-taldean parte hartu nahi izanez gero, kasuan kasuko eskabide-orria bete beharko da. AlhóndigaBilbaoren web orrian edo Informazio Gunean (Infopuntua) dago eskuragarri. Horrez gain, arrazoiei buruzko gutuna ere aurkeztu beharko da.

**Laborategi Aretoa. Kulturen Ataria**
**Astelehena, apirilak 22**
**10:00 - 14:00 eta 16:00 - 20:00**
**Sarrera dohainik, onartutako eskabideentzat**
**Izena emateko: www.alhondigabilbao.com**

## CONVOCATORIA GRUPO DE LECTURA 'EL CONTRATO'

A lo largo de 2013 y 2014 Bulegoa Z/B y AlhóndigaBilbao colaboran a través del proyecto 'El Contrato'. La primera fase se concreta en la formación de un grupo de lectura que tendrá lugar entre abril de 2013 y enero de 2014 en AlhóndigaBilbao. El objetivo es constituir un equipo de trabajo y reflexión en torno a los temas de 'El Contrato' (ver www.alhondigabilbao.com). La metodología de trabajo del grupo vendrá marcada por una serie de sesiones periódicas de lectura. Realizadas en la sala Laboratorio de AlhóndigaBilbao, éstas se organizarán en torno a textos que abordan cuestiones relativas a las relaciones contractuales de las cuatro áreas propuestas (comisariado, crítica, teoría social y danza).

La segunda fase, 2014, recogerá las reflexiones producidas a lo largo del primer año de trabajo.
Para asistir al grupo de lectura hay que rellenar el formulario correspondiente que puede descargarse de la web de AlhóndigaBilbao o recogerse en el Punto de Información, Infopuntua, aportando una carta de motivación.

Sala Laboratorio. Atrio de las Culturas
Lunes 22 de abril
10:00-14:00h y 16:00-20:00h
Entrada libre para solicitudes aceptadas
Inscripciones: www.alhondigabilbao.com

# AZAROA 2013
# NOVIEMBRE



Alhóndiga
Bilbao

**Kultura Bizi**
**Den Tokia**
Donde Vive
la Cultura

www.alhondigabilbao.com

# ARTEA ETA TEKNOLOGIA

# ARTE Y TECNOLOGÍA



## FABRIKAZIO DIGITALA, INDUSTRIA IRAULTZA BERRIA

Tomás Díezek, fabrikazio digitalean espezializatutako hirigileak, sektore ekonomiko berri honen aukerak erakutsiko ditu AlhóndigaBilbaon. Lehenengo, “Fab Labs. Fabrikazio Digitala industria iraultza berri baten eragile gisa. Bauhausetik ekoizpen banatu eta kolektibora” hitzaldiarekin. Bertan, fabrikazio digitaleko laborategiak aurkeztuko ditu, eta zenbait esparrutan sormena nola bultzatzen duten azalduko du.

Ondoren, Luciano Betoldirekin batera, “Diseinuari, arteari eta arkitekturari aplikatutako fabrikazio digitalaren hastapenak” izeneko tailerra eskainiko du, eta fabrikazio digitalean erabiltzen diren teknika ezberdinak aztertuko ditu. Era berean, teknika horiekin lanean diharduten artistak zeintzuk diren erakutsiko du. Praktika 3Dko inprimagailuekin egitngo da.

Tomás Díez irakasle iraunkorra da Kataluniako Arkitektura Aurreratuko Institutuan (IAAC), eta gaur egun zuzentzen duen Fab Lab Barcelona enpresako sortzaileetako bat da.

Asteazkena, azaroak 20
Hitzaldia. 19:00-21:00
Bastida Aretoa. -2 solairua
Sarrera dohainik. Gonbidapena Infopuntuan (Informazio Gunean) jaso behar da

Azaroak 21 eta 22
Tailerra. 16:00-21:00
Erabilera Askotarako Aretoa. Kulturen Ataria
20 € / 15€

## FABRICACIÓN DIGITAL, LA NUEVA REVOLUCIÓN INDUSTRIAL

Tomás Díez, urbanista especializado en fabricación digital, mostrará en AlhóndigaBilbao las posibilidades de este nuevo sector económico. Primero, con la conferencia ‘Fab Labs. La Fabricación Digital como el motor de una nueva revolución industrial. De la Bauhaus a la producción distribuida y colaborativa’. En la ponencia presentará los laboratorios de fabricación digital y explicará el modo en que impulsan la creación en diferentes ámbitos.

Después, junto a Luciano Betoldi, ofrecerá el taller ‘Introducción a la fabricación digital aplicada al diseño, el arte y arquitectura’, repasará las distintas técnicas que se utilizan en la fabricación digital y mostrará qué artistas están trabajando con éstas. La práctica se hace con impresoras 3D.

Tomás Díez, es profesor permanente en el Instituto de Arquitectura Avanzada de Cataluña (IAAC) y uno de los iniciadores del Fab Lab Barcelona, el cual actualmente dirige.

Miércoles, 20 de noviembre
Conferencia. 19:00-21:00h
Sala Bastida. Planta -2
Entrada libre. Recoger invitación en Infopuntua (punto de información)

21 y 22 de noviembre
Taller. 16:00-21:00h
Sala Polivante. Atrio de las Culturas
20€ / 15€






BULEGOA Z/B-REN PROIEKTU BAT ALHÓNDIGABILBAO-REKIN
UN PROYECTO DE BULEGOA Z/B CON ALHÓNDIGABILBAO

# KONTRATUA HITZALDI-ZIKLOA

Azaroak 12 eta 26, abenduak 10, eta 2014ko urtarrilaren 28a
Bastida Aretoa. -2 solairua
Sarrera dohainik
Informazio gehiago www.bulegoa.org

# CICLO DE CONFERENCIAS ‘EL CONTRATO’

12 y 26 de noviembre, 10 de diciembre y 28 de enero 2014
Sala Bastida. Planta -2
Entrada libre
Más información www.bulegoa.org

# **KONTRATUA** HITZALDI-ZIKLOA

Bulegoa z/b-k, AlhóndigaBilbaorekin lankidetzan, hitzaldi-zikloa antolatu du, Kontratua ekimenaren barruan. Proiektu hau joan den apirilean hasi zen, irakurketa-talde egonkorra osatuta; eta 2014an amaituko da, erakusketa batekin. Esparru desberdinetako lau espezialistak euren hausnarketak plazaratuko dituzte, zenbait praktikaren barruan ematen diren kontratu-harremanei buruz: artea, liburuen edizioa eta diseinua, zinema, teoria soziala edo antzerkia dira praktika horietako batzuk.

**Azaroak 12, asteartea. 19:00**
**HÉCTOR BOURGES VALLES (México DF)**

DESMOTHERNIZATZEA: desfiguratzea, askatzea, desikastea, mozorroa kentzea, deskolonizatzea, desagertzea, jaustea, desplazatzea, desegituratzea, larrutzea, desobeditzea, biluztea, despopulatzea, gizatasuna kentzea, lurpetik ateratzea, esnaraztea, desanimatzea, desiatzea.

«Aby Warburgen Atlas Mnemosyne delakoko panel batean bezala, hitzaldi honek (oraindik ere jardunean dauden) tentsioak zirriborratuko dituzten keinu, irudi eta narrazio historikoen antolamendu posibleak entseatu nahi ditu (…)»

Héctor Bourges Valles eszena-zuzendaria da. Zientzia politikoetan dago trebatuta, eta Mexikoko Teatro Ojo taldeko kidea da.

# CICLO DE CONFERENCIAS **'EL CONTRATO'**

Bulegoa z/b organiza en colaboración con AlhóndigaBilbao un ciclo de conferencias dentro de El Contrato. Este proyecto comenzó el pasado abril con la formación de un grupo de lectura estable y culminará con una exposición en 2014. Cuatro especialistas de distintas áreas expondrán sus reflexiones sobre las relaciones contractuales que operan dentro de prácticas como el arte, la edición y diseño de libros, el cine, la teoría social o el teatro.

**12 de noviembre, martes, 19:00h**
**HÉCTOR BOURGES VALLES (México DF)**

DESMOTHERNIZAR: desfigurar, desenganchar, desaprender, desenmascarar, descolonizar, desaparecer, desprender, desplazar, desmembrar, desollar, desobedecer, desnudar, despoblar, deshumanizar, desenterrar, desvelar, desanimar, desear.

«A la manera de un panel del Atlas Mnemosyne de Aby Warburg, esta conferencia quiere ensayar posibles disposiciones de gestos, imágenes y narraciones históricas que esbozan tensiones (activas aún) (…)»

Héctor Bourges Valles es director de escena. Formado en ciencias políticas, es parte del grupo Teatro Ojo de México.



**Azaroak 26, asteartea. 19:00**
**CATARINA SIMÃO (Lisboa)**

DESKOLONIZAZIOAREN ESZENARATZEAK: BERE ORAINA UKATZEN DUEN ZINEA

«Zinemaren etorkizuna bere orainaren ukapenetik sortu beharko da. Esaldi hori Mozambikeko Informazio ministroak esan zuen 1977an, Lankidetzari buruzko Zine Afrikarraren lehenengo Hitzaldian, Mozambiken. (…)»

Catarina Simão artista, arkitektoa eta ikertzaile independentea da.

JOZ 2. Jarduera Osagarrietarako Zentroa

**Abenduak 10, asteartea. 19:00**
**FILIEP TACQ (Kortrijk)**

ARTEARI BURUZKO ZENBAIT LIBURUTATIK EGINDAKO IBILBIDEA

«Nola pentsatu liburu bat. Nola eraman asmo eta ideia sorta bat objektu baten espaziora, irakurria izan dadin; eta nola egin hori, aipatutako objektua diseinatzailearen eta artistaren arteko elkarrizketaren emaitza denean. Aurkezpen honetan, jardunean sortutako gaiak aztertuko dira (…)»

Filiep Tacq diseinatzaile grafiko independentea da, liburu, arte-katalogo eta artista-liburuetan espezializatutakoa.

**Urtarrilak 28, asteartea. 19:00**
**ELENA CASADO (Madrid)**

GAUZA ARRUNTEN INDARRA

«Zein tekla ukitzen dute Comic Sans-ek edo Gandía Shore-k, hainbesterainoko haserrea edo mespretxua sortzeko? Zer dugu jokoan adostasun horretan? Gauza arrunten inguruko zentzumenekin jolasteak zenbait pista eman ditzake. Arrunta dena trauskila da, maila baxuagokoa. Baina egunerokotasunera, ohikora eta betikora ere eramaten gaitu. Eta bizimodua ordenatzen laguntzen digu, (…)»

Elena Casado Soziologia irakaslea da UCMn.

**26 de noviembre, martes, 19:00h**
**CATARINA SIMÃO (Lisboa)**

PUESTAS EN ESCENA DE LA DESCOLONIZACIÓN: UN CINE EN NEGACIÓN DE SU PROPIO PRESENTE

«El futuro del cine tendrá que surgir de la negación de su propio presente. Esta frase la pronunciaba en 1977 el ministro de Información de Mozambique durante la primera Conferencia de Cine Africano de Cooperación que se celebró en Mozambique. (…)»

Catarina Simão es artista, arquitecta e investigadora independiente.

CAC 2. Centro de Actividades Complementarias

**10 de diciembre, martes, 19:00h**
**FILIEP TACQ (Kortrijk)**

UN RECORRIDO ENTRE LIBROS DE ARTE

«Cómo pensar un libro. Cómo trasladar toda una serie de intenciones e ideas al espacio de un objeto para ser leído, y cómo hacerlo cuando éste es el resultado del diálogo entre diseñador y artista. En esta presentación, se analizarán cuestiones surgidas en el hacer (…)»

Filiep Tacq es diseñador gráfico independiente especializado en libros, catálogos de arte y libros de artista.

**28 de enero, martes, 19:00h**
**ELENA CASADO (Madrid)**

EL PODERÍO DE LO ORDINARIO

«¿Qué teclas tocan la Comic Sans o Gandía Shore que tanta irritación o desprecio despiertan? ¿Qué nos jugamos en ese consenso? Jugar con los diferentes sentidos de lo ordinario puede darnos algunas pistas. Lo ordinario es vulgar, inferior. Pero también remite a lo cotidiano, rutinario y común. Y suena a ordenar, (…)»

Elena Casado es profesora de Sociología en la UCM.